

Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

Emakume migratzaileak euskal gizartean

24.

Emakume migratzaileak euskal gizartean

Norma—Vázquez García

Eusko Jaurlaritzaren Herritartasunaren, **Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan Jarduteko V. Planean (2018-2020)** jasotzen denez, *“EAEko egungo immigrazio-eredua fluxuen feminizazio erlatiboan dago oinarrituta, eta etorkina, gehienbat, latinoamerikar jatorriko emakume bat da, elkarri txanda hartzen dioten herrialde batzuetakoa, eta, herrialde horien artean, garrantzitsuenek aurrekoen emakume-portzentajea handitzen dute, jatorriko herrialdeak ordezteaz bat. Oso adierazgarria izan da, oraindik orain, nikaraguar jatorriko immigrazioa, hamar pertsonatik bederatzi emakumeak baitziren”*.

Migrazio-eredu hori berria da. Alde batetik, **argi erakusten digulako zer-nolako aurrerapenak izan diren gizartean, azken urteetan emakumeak beren mugetatik kanpo mugitu ahal izan baitira**, oro har bakarrik –nahiz eta zenbaitetan familiaren babesa izan duten jatorri-herrialdean, edota laguntza-sare txiki bat helmuga-herrialdean–, baina, batez ere, ziurgabetasun handiarekin. Eta bestetik, **mugikortasun horrek genero-rol tradizionalekin eta genero-harremanekin haustea ekarri duelako**, bai jatorri-herrialdean bai helmugako gizartean.

Emakumeek migratu egiten dute, baina zer migrazio-proiektu dute? Zer ekartzen dute berekin, migratzen dutenean? Zalantzarik gabe, feminismoaren eskutik etorri da XXI. mendeko iraultza handienetako bat, munduko alde guztietan emakumeen diskriminazioa jomugan jartzea lortu baitu. **Emakumeok amatasunari eta zaintzari lotuta eduki gaituzten genero-estereotipoekin haustea lortu dugu, bai etxean bai espazio publikoan**. Baina haustura hori ez da iraganeko gauza, une honetan bertan ari da gertatzen, eta horrek gatazkak, hausturak, egokitzapenak, ahultasunak eta ziurtasunak dakartza... Hori guztia ere maletan daramagu migratzen dugunok.

Gatazka horietako bat lotuta dago euskal hirietara iristen diren emakumeek zain duten egoerarekin; izan ere, beren bizi-proiektuak zehazterakoan, onartu behar izaten dute proiektu horiek garatzeko muga bat dutela: hemen zaintza-lanak eta etxeko lanak egin beharra. Izan ere, Euskadiko emakumeek, poliki-poliki, rol tradizionalekin hautsi dezakete, eta gizonekin alderatuta berdintasun-kuota handiagoak eta hobeak lortzea planteatu dezakete; baina emakume migratzaileek (gehienak arrazializatuak), aldiz, bertako emakume horiek hutsik utzitako zuloak betetzen dituzte. Espazioak "harrapatze" hori Atzerritarrei buruzko Legearen esparruan egiten da. Lege horrek eskubideak murrizten ditu, emakume migratzaileek etxeko eta zaintzako espazioa modu prekarioan betetzen dutela ziurtatzeko.

Baina, horrez gain, gero eta agerikoagoa den emakumeen aniztasun hori dela-eta, bertako biztanleriak zalantzan jartzen du haiek zer ekarpen egiten duten, zer funtzio duten edota zer nahi duten. **Migrazio-mota berri honi buruz egiten diren galderak eta komentarioak aurreiritziz beteta daude, eta, gainerako aurreiritzi guztiak bezala, hauek ere konfiantza faltak eta ezjakintasunak elikatuak dira.** Hona hemen emakume migratzaileok behin baino gehiagotan entzun izan ditugun galderak eta adierazpenak, jakin-minez eginak zenbaitetan, eta etsaitasunez gehiegitan.

Zertarako etortzen dira emakumeak, hemen krisian bagaude?

Berehalako bi erantzun daude galdera horrentzat. Lehenengoa da **migratu duten emakume horien herrialdeetan krisia are handiagoa dela**, eta auke-
rak urriak edo hutsalak direla emakume askorentzat; eta bigarrena da, hain
zuzen ere, krisi ekonomiko horrengatik etortzen direla emakumeak, korre-
lazioan familietan gertatzen den **"zaintzaren krisiagatik"**. Etxean bi soldata
behar badira aurrera ateratzeko, zaintza-lanak egingo dituen beste norbait
behar da, eta, hain zuzen, hortxe sortzen dira beste herrialde batzuetako
emakumeentzako lan-nitxoak; krisia dela-eta, gainera, nitxo horiek prekarie-
tate handiko lan-baldintzak izaten dituzte.

**Migratzeko erabakia ez da hartzen norbera asebeteta sentitzen ez delako
soilik, baizik eta jatorri-herrialdeetako egoera ekonomikoaren ondorio
izaten da**, eta, zenbaitetan, egoera sozial eta politikoaren ondorio, bai eta fa-
milia- edo bikote-egoeraren ondorio ere. Hain zuzen ere horrengatik bizi dute
emakumeek dolu-prozesu anbigua; hau da, joan nahi dute, baina, aldi berean,
ez dute joan nahi, galera hori kanpoko inposizio baten ondorio delako –hala
gertatzen da, esaterako, jazarritako emakumeekin– edota, etsiturik, joatea one-
na dela onartzen dutelako, nahiz eta horrek ez dakarren migrazio-proiektu argi
bat eraikitzea, besteak beste "laster" itzultzeko itxaropena dutelako: behar bes-
te diru biltzen dutenean, beren herrialdeko egoera hobetzen denean, beren
bikotekideari itzultzeko garaia iristen zaionean... Migrazio-proiektua oso gutxi
zehaztuta dago, itxarote-denbora bat delako, batez ere.

Atzerriko emakumeek gauza bakarra dakite egiten: “etxean lan egitea”

Ez. **Euskal gizarteak ez die aukera asko ematen migratzen duten emakumeei.** Batez ere, **zaintza-lanak eskaintzen dizkie, eta lan hori oso egoera prekarioan dago,** alde batetik, eskuarki emakumeek egiten dutelako, eta bestetik, emakume migratzaileen administrazio-egoera irregularrak –herrialdean dauden lehen hiru urteetan, gutxienez– are iraingarriagoak bihurtzen dituelako haien lan-baldintzak.

Migratu duten emakume askok gustuko zuten beren jatorri-herrialdean zuten bizimodua; beste batzuek, berriz, ez zuten inolako arazorik izan herrialdetik alde egiteko, uste baitzuten bizi-aukerarik ematen ez duen herrialde batek ez duela herriminik merezi. Bai batzuek bai besteek badakite zer-nolako ahalegina eta sakrifizioa egin behar den aurrera ateratzeko, eta beren gaitasunak garatzea lortu bazuten ere, ezin dituzte gaitasun horiek balioan jarri helmuga-herrialdera iristen direnean.

Zenbait emakume migratzaile profesionalak dira, baina lan prekarioak egiten dituzte; lan horietan, gainera, lan-baldintza prekarioetan lan egiten duten euskal emakumeekin topo egiten dute, baina bada desberdintasunik bi talde horien artean, bigarren multzo horretako gehienak gazteak baitira eta/edo laguntza-sare bat eta Europako pasaporteak baitituzte. Horrez gain, erakundeak kezkatu egiten dira azken horiez –pandemia-garaian, esaterako–; eta emakume migratzaileek, aldiz, etsaitasunezko giroari aurre egin beharko diote, edo, kasurik onenean, berak “atzean uzteaz” arduratzen ez den ingurune bati.

Lan bat soilik bada, zergatik eskatzen dute maitasunez egitea?

Zaintza-lanek politika publikoen erdigunean egon behar lukete, zaintzarik gabe ez baitago bizitzarik. Baina ez da horrela gertatzen. Covid-19agatik itxialdian argi geratu zen zeinen funtsezkoak diren zaintza-lanak, baina, oraindik ere, gizarteak eta erakundeek gutxietsi egiten dituzte.

Etxeko eta zaintzako lana beti hartu izan da *“emakumeen berezko”* zeregintzat, eta, horrenbestez, ez da lan gisa hartzen, emakumeek beren familiako kideenganako duten maitasunaren adierazpentzat baizik. Ikuspegi hori indarrean da oraindik, baina zaintza-lan hori egiten duten emakumeek ez dute familia-loturarik, ez eta lotura afektiborik ere, kontratatzen dituzten pertsonekin. Are gehiago, normalizatu egin da *“zaintzan afektibitatez jokatu”* beharraren exijentzia, baina baldintza horrek ez du ekarri zaintzaileak soldata justu bat izatea.

Aitzitik, **etxeko eta zaintzako langileek jasaten dituzten prekarietate-baldintzak** –are esplotazioa ere– **legezkoak dira.** Legezkoak dira, **eskubideak murrizten dituen lege batek babesten dituelako: Atzerritarrei buruzko Legeak.** Lege horrek ez ditu pertsonak ikusten, esplotatu beharreko eskulana baizik; ez ditu proiektu propioak dituzten emakumeak ikusten, administrazio-baldintza irregularretan zapaldu beharreko emakume pobreak baizik.

Lege horrek aukera ematen du, lan-eskaintzetan, gutxiago ordaintzeko lan gehiago egiteagatik, jakinik enplegatzaileak (gehienak emakumeak) hogeita hamaika eskutik duela eta beti izango duela aukera honako hau esateko: *“gustuko ez baduzu, kalera, beste hiru baititut ilaran zain”.*

Emakume hauek “edozer gauza egiten dute” paperak lortzearren

“Edozer gauza egiten dute” pentsatzen edo esaten duena ez da ari edozer lan egiteari buruz soilik, baizik eta ziurtzat jotzen ari da emakume migratzaileek, beren jatorri-herrialdea zeinahi izanda ere, intentzio txarrak dituztela eta iruzur egiteko edo gezurra esateko asmoa dutela, Euskadiko lurretan legezko egoeran egotea lortzeko. **Emakume gaiztoaren irudi hori emakume guztiok sufritzen dugu, migratzaileok nahiz bertakoek**, baina, une honetan, aurreiritzi horiek nabarmenagoak dira beste azal-kolore bat dugun emakumeengan, beste forma edo altuera bat, beste hizkuntza bat eta beste ohitura batzuk ditugunongan.

Migratu duten emakumeak herritar ziren eta herritar sentitzen ziren beren jatorri-herrialdeetan, baina baldintza hori kendu diete haietatik ateratzean. Hurbileko pertsonetik harremanen, identitateen, sentimenduen eta identifikazioen metaketa bat zen herritartasun hura; kultura bat partekatzeak eta, finean, gizarte bateko parte sentitzeak sorrarazten dituen sentipenen sare bat. Bazekiten lurralde batean kokatutako talde bateko, herrialde bateko, kide zirela, eta horrela sentitzen ziren, horrek berekin dakarren inguruarekiko segurtasun-eta kontrol- sentipen osoarekin.

Baina **beren herritartasuna** –hau da, “eskubideak izateko eskubidea duten pertsonak” izatea– **ukatzen dien herrialde ezezagun batera iristen direnean, eskura dituzten beste estrategia batzuk erabili behar dituzte aurrera egiteko**; izan ere, azken finean, pertsona guztiok nahi dugu bizitza duin bat, zenbaitek egunez egun bizirauteko modua bilatu eta bilatu besterik egin ezin badute ere.

Eskerrak eman beharko lituzkete hemen seguru bizi direlako eta arreta ona ematen zaielako

Bai, Euskadiko hirietako eta herrietako kaleak seguruagoak dira bertara iristen diren emakumeen jatorri-herrialdeetakoak baino. **Segurtasun horri esker, lasai bizi daitezke, baina horrek ez du bermatzen ekonomikoki aurrera egin ahal izatea, ez eta migratzean amestu zituzten egoeretara gerturatzea ere.** Osasun- eta hezkuntza-sistema publikoak ere ez dira pribilegio handia haientzat; izan ere, bertako herritarrentzat zerbitzu horiek doan jasotzea abantaila dela aitortu arren, haiek ikasita iritsi ziren hona, eta haien tituluen homologazio-prozesuak ez dira ez errazak ez bizkorak.

Bestalde, beren gorputza eta ondoezak zaintzeko beste arau kultural batzuetara ohituta baldin badaude, helmuga-herrialdean beren etxeko erremedioez edo gorputzari entzuteko moduz dituzten ezagutzak –antzinakoak, beren jatorri-komunitateetan amengandik eta amonengandik jasoak– barregarritzat hartzen dituztela sentitzeak ez die konfiantza handirik ematen anbulatoriora joateko, are gutxiago lehen esperientziak diskriminatzailak eta iraingarriak izan badira.

Horrenbestez, segurtasuna ikaragarri estimatzen dugun pribilegioa da, baina zailtasunak hasten direnean, zaila da segurtasun-sentipen hori ez erlatibizatzea.

Otzanagoak dira, beren jatorri-herrialdeetan matxismo eta indarkeria gehiago dagoelako

Bai, indarkeria gehiago dago, eta, batez ere, ez dago indarkeria hori geldiarazten duen zuzenbide-estaturik. **Baina ez, ez dago otzantasan handiagoa.** Nahikoa da Latinoamerikan eta Kariben indarkeria matxistari eta feminizidioei aurre egiten dieten ehunka, milaka, milioika emakumeren mobilizazioak ikustea.

Erdialdeko Amerikako herrialdeetan, indarkeria errealtate bat da emakumeentzat, etengabe egin behar baitiete aurre gaizkile-taldeei, indarkeria politikoari edota kaleko jazarpenari. Burua eta gorputza arriskuari aurrea hartzeko presatzen dira, eta beldurra eta tentsioa bizi dituzte, bai eraso orenen aurretik, bai erasoen unean, eta bai ondoren.

Askotariko indarkeria-adierazpen horiek direla-eta, emakumeak gutxiago ateratzen dira etxetik, beren gizarte-harremanak murrizten dituzte kalean, eraso bat jasatearen beldurrez, edota saiheste-estrategiak planteatzen dituzte. Horrenbestez, sistemak bere helburua lortzen du; hau da, emakumeei gogorarazten die, alde batetik, beren gorputzak etengabe behatzen direla eta horien inguruko iritziak edo komentarioak egiten direla, eta, bestetik, beren lekua etxea dela, ez kalea. Horrez gain, emakumeek ez dituzte jasandako erasoak poliziarren aurrean salatzen, ez baitute konfiantza handirik haiengan; haiengandik laido edo umiliazioak eta barreak baino ez dituzte espero, gertatutakoaren erruduntzat hartzea, edo, besterik gabe, esku ez hartzea, eta horrek biktimizazio handiagoa dakar.

Zer errealtateri buruz ari gara? Izan ere, kaleko jazarpenari buruz ari bagara, hemengo errealtatea eta hangoa nahiko antzekoak dira. Eta etxeko langileek jasaten duten jazarpenaz ari bagara, agerian geratzen da bertako gizonen matxismo lotsagarria, bai eta zenbait emakumeren konplizitatea ere, ez baitute ikusi, entzun eta onartu nahi zer gertatzen den beren etxeetan. Horretan, behintzat, badirudi bertako emakumeak ere otzan samarrak direla.

Zergatik esaten dute arrazializatuak direla?

Euskal gizartean, emakume migratzaileok gure gorputzen arrazializazioaren errealitateari egin behar diogu aurre. **“Arrazializazioa” kontzeptu politiko bat da, gorputzen aniztasunean oinarrituta eraikitako gizarte-egiturak adierazten dituena.** Boteredunek “exotiko” bihurtzen dituzte emakume migratzaileen gorputzak, azal-kolorea, aurpegierak, formak edota janzkera direla-eta, eta desberdintasun horietan oinarrituta, **pertsonen arteko diskriminazioa eragiten duen sistema bat sortzen da;** hau da, **batzuk**, emakume zuriak, **pribilegiozko lekuetan kokatzen dituzte, eta besteak, arrazializatuak diren aldetik, mendekotasuneko lekuetan.**

Arrazializatuak garela diogu gure identitate politikoaren adierazle gisa. Izan ere, gure gorputzak eta gure gorputzen ezaugarriak aldarrikatzen ditugu, eta, horien bitartez birsozializatzen gara harriduraz begiratzen diguten herrialde hauetan.

Amatasunaren gai korapilatsua

Migratzen duten emakume askok beren seme-alabengatik migratzen dute, etorkizun hobea izan dezaten; hau da, prest daude beren bizitzak sakrifikatze-ko, haien etorkizuna hobetearren. Askotan, beren migrazio-proiektuaren parte da ahal dutenean haiekin berrelkartzea, baina egun hori luzatuz joan daiteke, eta, zenbaitetan, ezinezko ere bihurtzen da berrelkartze hori.

Prozesu mingarri asko gertatzen dira urte horietan guztietan. Eta prozesu mingarri horiek gertatzen diren bitartean, emakume migratzaileek beren seme-alabak urrutitik nola hezi ditzaketen hausnartzen duten bitartean, beren jatorri-herrialdeetako beste emakume batzuekin amaordetzak partekatzen dituzten bitartean, ama txarrak direla entzun behar izaten dute. Modu irekian edo inplizituki, epaitu egiten dira. *“Nola liteke haiek han uztea!”*. “Nik ezingo nuke”. Haiek ere ezin dute, baina halabeharrez egin behar dute.

Gai honetan, **paradoxa da hemen haurrak zaintzeko kontratatzen dituztela. Hau da, beren seme-alabak utzi dituzten ama txarrei ematen zaie beste haur batzuk zaintzeko ardura.** Zalantzarik gabe, amatasunaren, amaordetzaren eta zainketen sinplifikazio bat da.

Zergatik ez dira integratzen?

Egungo migrazio-eredu feminizatua dela-eta, euskal gizarteak bizikidetzaren aldeko konpromisoa hartu beharko luke, eta ez lieke integratzea exijitu behar emakume migratzaileei. Gizarte konplexua eta askotarikoa gara, pertsona guztien eskubide guztiak errespetatuz eraiki beharrekoa.

Hori gertatzen ez den bitartean, emakume migratzaileek beren berdinekin elkartuz jarraituko dute seguru sentitzen diren lekuetan, jasaten dituzten bidegabekeriei elkarrekin aurre egiteko. Sareak sortzen jarraituko dute, paperik ez izateagatik erakundeek ahantzia duten herrikide bat bera ere atzean ez uzteko; duten gutxi hori partekatzen jarraituko dute, eta/edo euskal herritar kontzienteen elkartasunari esker lor dezaketen hori partekatzen.

Sare horietan estrategiak partekatzen dituzte, jabetzen dira ez daudela bakarrik, kolektibitate-idea bat eraikitzen dute, eta indartsu sentitzen dira, bestela –bata bestearengandik isolatuta– ezin izango bailukete hori dena lortu. Eta batez ere, bizitza aurrera ateratzen laguntzen diote elkarri, dena trukatur: baliabideak, kontaktuak, ondasunak, jakintzak, eta amets egiten jarraitzeko behar den guztia.

